

## SANTUAK SAN JUAN

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

Bart sua agiri zan mendian  
ta uri guziak kanta «San Juan».  
Jaia gertatzen gaur plazan.

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

San Juan, udearen atean:  
suzko-zezena kaleetan,  
eguzki-lorak ate-burueta.

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

Goizaldeko txistu doiñuan.  
kalez-kale, erriaren biran  
surrak aintxintxika sokan.

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

Oitura zarren itzalean  
eguzki jauna argi egin naian,  
...goibel da, lenaren lausoan.

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

Eusko semeak, anaitasunean,  
alaiki San Juan egunean.

Illuntzeko Aremaritakoan:

Dorre kanpaiak:  
*dilin, dan...*

Jaia laisterka doa egan,  
erri aldarrika: «San Juan,  
nekez eterri ta bizkor joan!»

OTSALAR